

MANIFESTUA

Nafarroa, erkidego txikia bada ere, Nazio Batuek finkaturiko Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko jomugari ekarpen handiena egin dioten munduko eskualdeetako bat izan da azken hogeita bost urteotan. Nafarroak definitzen lagundu duen eredu sozial, erregulatzaile, industrial, finantzario eta ingurumenekoan, energia berriztagarrien urteko inbertsioa handiagoa izan da petrolioari dagokiona baino. Halaber, ekimen berritzaile garrantzitsuak sortu dira Nafarroan elikagaigintzako, osasungintzako eta automozioiko sektoreetan; gainera, etorkizun handiko ekintzailtzak landu dira gurean ere berriki industria sortzaile eta digitaletan eta turismo integralean.

Eta Nafarroan bi unibertsitate paregabe –nazioartean ospetsuak– daudelako lortu ahal izan da hori; hala, jakintza eskuratzeko aukera dute nafarrek, edozein izanik ere euren jatorrizko familien eskuragarritasun ekonomikoa.

Orobat, botere publikoek 1982az geroztik gauzatzen duten estrategia irmo eta jarraitua lagungarria izan da horretarako, gure autonomia adimen handiz baliatu eta industria, inbertsioa eta enplegua babestu baitute. Azken urteotan, etorkizun handiko sektoreen inguruan kontzentratu izan ditu estrategia horrek baliabideak: inbertitzailea erakartzeaz gain, sozialki erakargarria zen lan-ingurunea sortu du. «Especializazio Adimenduneko Estrategia (S3)» da, Europako Batzordeak emandako printzipioei jarraikiz landua.

Gaur egun, errenta-maila handia dugu Nafarroan, gizarte-desoreka handirik gabea; gainera, Nafarroako langabezia-maila baxua da Espainiakoarekin alderatuta (Europakoarekin alderatuta altua bada ere), genero-berdintasunaren tasa Europako batezbestekoa baino hobea da, etorkinak errespetatu egiten dira, desgaitu askori enplegua ematen zaie, organo- eta odol-donazio asko egiten dira eta, oro har, harro sentiarazten diguten faktore asko ditugu Nafarroan.

Arrakasta horrek ez gaitu erabateko poztasunera eramane behar. Gaur egun, eraldaketa sozial eta ekonomiko sakon bat bizi dugu, zenbait berrikuntza teknologiko erradikal direla-eta: digitalizazioa, datifikazioa –etengabe elkarrekin konektatutako milaka milioi pertsonaren eta gailuren datu-masa ikaragarri bat sortzea du bereizgarri–, eta adimen artifiziala, prozesu mental gero eta konplexuagoak kopiatzeko gai den sistema gisa. Eraldaketa horrek, izan ere, gizadiaren aurrerabide-garairik boteretsuenetako batean kokatzen gaitu, eta eragin geldiezina izango du horrek zientziarekin, ekoizpenarekin eta mugikortasunarekin lotutako gure sistemetan, baita gure bizi-itxaropenean ere. Gizakiak eskuragarri duen edozein erremintarekin gertatzen den bezala, abantailez gain, neurrigabekeria eta desoreka ere ekar ditzake eraldaketa horrek lehen urratsetan.

Iraultza horri aurre egiteko, Europak ezin du atzean geratu, ez alderdi teknikoari eta enpresa-alorrekoari dagokienez ez onura ekonomiko eta teknologikoaren eta herritarren babesaren arteko orekari dagokionez. Auzia ez da soilik teknologiak zer egin dezakeen,

teknologiak zer egin behar duen ere kontuan izan behar dugu: adimen artifizialak tresna erabakigarria izan behar du Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko, eta lagundu egin behar du muturreko pobrezia desagerrarazten, desorekak murrizten eta klima-aldaketa gelditzen. Gizakia lan automatizagarrietatik askatzeak aurrez aurre ipintzen gaitu erronka zirrargarri batekin: etorkizuneko lanbideak sortu beharko ditugu eta, horrez gain, lana eta aberastasuna banatzeko formula berriak bilatu beharko ditugu, hobekuntza-aukera guztiongana irits dadin.

Erronka horiek «talentua» eskatzen dute, prestakuntza akademiko eta giza prestakuntza sendoa izanik gizarte-ingurunearekin konprometitu dauden pertsonak, hain zuzen, Nafarroa erakargune bihurtuko dutenak, eta ez giza deskapitalizazioa pairatzen duen eskualde. Nafarroako gizarteak ez du ikusle soil izan behar, eraldaketa horren eragile aktibo baizik, gure interes eta uste osoei jarraikiz gure lurraldea taxutzen lagunduko duena, betiere honako kontzeptu hauei jarraikiz:

Lidergoa, gure ordezkari politikoek gauzatu, baita eragile intelektual, sozial eta enpresarialek ere.

Lankidetzak, enpresen, *startupen*, jakintza-eragileen –unibertsitateen, ikerketa-zentroen eta teknologia-zentroen– eta administrazio publikoen artean aliantzak sortuz. Nafarroako dinamizatu egin behar ditu erosketak publikoko bere politikak, ekintzailak eta ikerkuntza-jarduerak emaitzatarako bideratzen laguntze aldera.

Erregulazioa beharrezkoa da arau-teknika berriak sortzeko, Nafarroa Europako eskualde liderren artean egon dadin, teknologia arautzeko ekimenen kalitateari dagokionez, baita eraldaketarako irekitasunean ere, produktu eta soluzio digital berriak sortze aldera.

Hezkuntza eta prestakuntza funtsezko alderdiak direnez gero, ezinbestekoa izango da gure ikasketak planik etengabe egokitzea, nola lanbide-heziketan hala unibertsitate-graduan, baita gure langileen gaitasun digitalak etengabe eguneratzea eta gazteen artean bokazio teknikoak pizteko ekimenak sustatzea ere.

5G. Iraultza digitalak hiri handien makrozefaliari eta despopulatzeari aurre egin behar die (izan ere, badu horretarako gaitasuna), eta helburu horiek erdiesteko, funtsezkoa da banda zabala eta 5G sareak hedatzea.

Azkenik, talentua erakarri eta itzularazi behar da; horretarako, esparru irekia, egonkorra eta erakargarria eskaini behar dugu, talentua garatzen lagunduko duena, gure legegintza- eta zerga-autonomia baliatuta, itzultze optimo batekin.

Ondorioz, Nafarroak bere baliabide eta gaitasun guztiak aprobetxatu behar ditu, egungo eraldaketa sozialean eragile esanguratsu izan dadin gure lurraldea, aurrerabide eta ongizate globalean lagundu dezan.

Pamplona-Iruñea, 2019ko azaroaren 26a

MANIFIESTO

Navarra, a pesar de ser una comunidad pequeña, ha sido en los últimos veinticinco años una de las regiones del mundo que más ha aportado a la consecución de los Objetivos de Desarrollo Sostenible establecidos por Naciones Unidas. Desde esta tierra se ha contribuido a definir el modelo ambiental, social, regulatorio, industrial y financiero con el que las energías renovables ya han superado al Petróleo en ritmo de inversión anual. También han nacido aquí relevantes iniciativas innovadoras en los sectores de Alimentación, Salud, Automoción, así como recientes emprendimientos prometedores en Industrias Creativas y Digitales, o en Turismo Integral.

Esta realidad ha sido posible gracias a contar con dos magníficas Universidades de prestigio Internacional, que han proporcionado a los navarros la oportunidad de acceder al conocimiento con independencia de la disponibilidad económica de nuestras familias de procedencia.

Asimismo, ha contribuido a ello la estrategia firme y continuada de los poderes públicos desde 1982, apoyando a la industria, la inversión y el empleo, utilizando inteligentemente nuestra autonomía. En los últimos años, esta estrategia ha concentrado los recursos en torno a los sectores con futuro, atrayendo al inversor y creando un entorno laboral socialmente atractivo. Es la “Estrategia de Especialización Inteligente S3” elaborada en línea con los principios formulados por la Comisión Europea.

Hoy disfrutamos de una Navarra con un alto nivel de renta, sin grandes desequilibrios sociales, con un desempleo bajo para España, aunque alto para Europa, una tasa de igualdad de género mejor que la media europea, que respeta a los inmigrantes extranjeros, que da empleo a muchos de sus discapacitados, generosa con sus donaciones de órganos y sangre y, en general, con muchos factores que nos hacen sentirnos orgullosos.

Este éxito no debe llevarnos a la complacencia. Estamos asistiendo a una profunda transformación social y económica provocada por innovaciones tecnológicas radicales como la digitalización, la datificación -caracterizada por la generación de una colosal masa de datos provenientes de miles de millones de personas y dispositivos permanentemente interconectados-, y la Inteligencia Artificial, como sistema capaz de reproducir procesos mentales cada vez más complejos. Esta transformación nos sitúa en una de las épocas de progreso más poderosas de la humanidad y afectará de manera imparable a nuestros sistemas científicos, productivos, de movilidad y a nuestra esperanza de vida. Como toda herramienta en manos del ser humano, junto a sus ventajas acarrea el riesgo del abuso y el desequilibrio en sus primeros pasos.



Ante esta revolución, Europa no puede quedarse atrás, ni en el aspecto técnico y empresarial ni en el equilibrio entre el beneficio económico y tecnológico y la protección del ciudadano. Se trata no solo de lo que la tecnología puede hacer, sino de lo que debe hacer: la Inteligencia Artificial ha de convertirse en un instrumento decisivo para la consecución de los objetivos de Desarrollo Sostenible contribuyendo a erradicar la pobreza extrema, reducir las desigualdades y frenar el cambio climático. La liberación del ser humano de las tareas automatizables nos enfrenta al reto apasionante de crear las profesiones del futuro y de buscar nuevas fórmulas para el reparto del trabajo y de la riqueza, para que la oportunidad de mejora llegue a todos.

Estos retos requieren “talento”, es decir, personas innovadoras con una sólida formación académica y humana, comprometidas con su entorno social, que conviertan Navarra en un polo de atracción y no en una región que sufra la descapitalización humana. La sociedad navarra no debe ser simple espectadora sino agente activo de esta transformación, ayudando a configurarla conforme a nuestros intereses y convicciones, en torno a los siguientes conceptos:

El liderazgo, ejercido por nuestros representantes políticos, así como por agentes intelectuales, sociales y empresariales.

La colaboración, creando alianzas entre empresas, startups, agentes del conocimiento (Universidades, Centros de Investigación y Centros Tecnológicos) y las Administraciones Públicas. Navarra debe dinamizar sus políticas de compra pública innovadora y así ayudar a orientar la actividad emprendedora e investigadora hacia los resultados.

La Regulación, necesaria para crear nuevas técnicas normativas que sitúen a Navarra entre las regiones líderes de Europa en calidad de iniciativas regulatorias tecnológicas y en apertura a la transformación, con el objeto de crear nuevos productos y soluciones digitales.

La educación y la formación, pilares básicos en los que se debe incluir la permanente adaptación de nuestros planes de estudios, tanto en formación profesional como en grado universitario; la actualización constante en habilidades digitales para nuestros trabajadores y la promoción de iniciativas para despertar vocaciones técnicas entre nuestros jóvenes.

5G. La revolución digital puede y debe combatir el despoblamiento y la macrocefalia de las grandes ciudades, y para cumplir esos objetivos el despliegue de la banda ancha y de las redes 5G son esenciales.

Y finalmente, la atracción y el retorno del talento, ofreciendo un marco abierto, estable y atractivo para su desarrollo, utilizando nuestra autonomía legislativa y fiscal con un óptimo retorno.

Como conclusión, Navarra debe aprovechar todos sus recursos y capacidades, para hacer de esta tierra un actor relevante en la transformación social que vivimos, contribuyendo al progreso y al bienestar global.

Pamplona-Iruñea, 26 de noviembre de 2019